



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko otsailaren 10ean

14 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

—Nafarroako Bardeako Komunitateari buruzko fiskalizazio-txostena, 1994tik 1998rako ekitaldietakoa, Kontuen Ganbarak egin (2. or.).

#### I SAILA:

##### **Parlamentuko Jarduera:**

—2000ko urtarrilan egindako bilerak (12. or.).

—1999ko urtarrilan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (12. or.).

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Nafarroako Bardeako Komunitateari buruzko fiskalizazio-txostena, 1994tik 1998rako ekitaldietakoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko abenduaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Nafarroako Bardeako Komunitateari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1994tik 1998rako ekitaldietakoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1999ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Nafarroako Bardeako Komunitateari buruzko fiskalizazio-txostena, 1994tik 1998rako ekitaldietakoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea (3. or.).
  - II.1. Lurraldearen eta jabetzako luraren deskripzioa (3. or.).
  - II.2. Araubide juridikoa (3. or.).
  - II.3. Barne antolamendua eta funtzionamendu araubidea (4. or.).
- III. Helburua (5. or.).
- IV. Norainokoa eta mugak (5. or.).
- V. Iritzia (6. or.).
  - V.1. 1998ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (6. or.).
  - V.2. Ondare egoeraren azalpena 1998ko abenduaren 31n (6. or.).
  - V.3. Legezketasuna (6. or.).
  - V.4. Ekonomia eta finantza egoera 1999ko abenduaren 31n (6. or.).
- VI. Finantza-egoerako orriak (7. or.).

**VII. Gomendioak (8. or.).**

- VII.1. Zenbait lur udalei atxikitzea (8. or.).
- VII.2. Antolaketa orokorra (9. or.).
- VII.3. Kontabilitatea eta aurrekontuak (9. or.).
- VII.4. Langileak (9. or.).
- VII.5. Diruzaintza (10. or.).
- VII.6. Dirusarrerak (10. or.).
- VII.7. Administrazio-kontratazioa (10. or.).

**Eranskina.-** Errege Bardeako Komunitatearen organigrama, 1998-12-31ko plantilla organikoaren arabera (11. or.).

**I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaleen Batzarrak, 1999ko martxoaren 23ko erabakiaren bidez eta "Askotarikoa" eta "Ezker Abertzalea" taldeen eskariz, Kontuen Ganbarari eskatu dio "Errege Bardeako Batzarrearen azken bost urteetako auditoretza egitea".

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Bardeako Komunitatearen fiskalizazioa (1994tik 1998rako ekitaldiak) 1999ko Jarduketa Programaren barruan sartu da.

Hona hemen Bardeako Komunitatearen datu-rik garrantzitsuenak:

- Komunitateko aurrekontuen likidazio eta bila-kaera 1994tik 1998ra (pezetak, milioitan):

Likidazioa	1994	1995	1996	1997	1998
Gastuak	98	161	104	187	109
Betetakoa (%)	% 84	% 77	% 56	% 107	% 48
Dirusarrerak	94	175	112	119	118
Betetakoa (%)	% 80	% 85	% 60	% 68	% 52

Gastuaren urteko aurrekontuetan ikus daitekeenez, 100 milioien inguruan dabilta, eta joera hori bitan aldatzen da urte-anitzetakoak diren egoera berezi eta puntualen ondorioz. Hona hemen:

\* 1994 eta 1995 bitartean, egoitza berrirako eraikina erostean ondorioz, guztizkoa 130 milioitakoa izan zen.

\* 1996 eta 1998 bitartean, egoitza berria birgaitzearen ondorioz, guztizkoa 110 milioitakoa izan zen.

Dirusarrerei dagokienez, hauek ere 100-110 milioien inguruan dabilta, 1995ean izan ezik. Urte horretan, 55 milioi egiten duten mailegu batzuek joera hori aldatzen dute. Dena den, esan behar da 1998an ez dela aurrekontuan sartu erabilitako 30 milioitako kreditu bat.

Bestalde, Tiro Poligonoaren Errentamendu eta Hitzarmena dela-eta, 70 milioiko dirusarrerak izan dira urtero.

Hona hemen, Komunitatean lanean diharduten pertsonen zerrenda eta horien bilakaera:

Langileak	1994	1998
Funtzionarioak	3	1
Lan-kontratudun finkoak	4	4
Aldi baterako lan-kontratudunak	3	5
Guztira	10	10

Txostenaren eranskinean entitatearen organigrama agertzen da, 1999ko abenduaren 31koa.

## II. NAFARROAKO ERREGE BARDEAKO KOMUNITATEA

Ondotik azaltzen ditugu Errege Bardeako Komunitatearen (aurrerantzean Komunitatea) antolaketa ezaugarri eta ezaugarri juridiko nagusienak.

### II.1. LURRALDEAREN ETA JABETZAKO LURRAREN DESKRIPZIOA

Errege Bardea 40.000 Ha. baino gehiagoko azalera duen landa lurra da eta Nafarroako hegoaldean dago, Aragoirekin mugan. Historian zehar, lur eremu hori abereen bazkaleku gisa eta egurra aprobetxatzeko erabili izan da, eta duela gutxi, laborantzarako.

Antzinako gertakarietara jo gabe, esan behar da, hasiera hartan erregeak izan zirela ondare horren titularrak, eta hortik datorkio hain zuzen ere Errege Bardea izena. Gero, Estatuaren esku gel-

ditu zen. Dena dela, antzinatek, ondoko herritarrek erabili ahal izan dituzte mendi horiek:

Tutera	Corella
Arguedas	Valtierra
Fustiñana	Cabanillas
Cortes	Buñuel
Cadreita	Milagro
Villafranca	Martzilla
Funes	Azkoi
Faltzes	Caparrosa
Santakara	Mélida
Zarrakaztelu	Erronkari
Zaraitzu	Monasterio de la Oliva

1705eko Errege Zedulak berretsi zuen erabilera hori, eta horren bidez, erregeak Bardearen erabilera eta gozamina mugagabea izanen zela ezarri zuen, baldin eta haren gozamina zuten herriek 12.000 dukat ordaintzen bazituzten.

Abenduaren 29ko 3142/1979 Errege Dekretuaren bidez, Estatuak Errege Bardearen titulartasuna doan eman zion Komunitateari, baina lagapen hori Auzitegi Gorenak 1984ko maiatzaren 23an emandako epaiak baliogabetu zuen.

Beraz, lur horiek ondasun berezia dira, "komunitatea" alegia. Estatuak du haren jabetza soila, jabetza erabileraduna, aldiz, haren gozamina duten entitateek dute.

Dena den, azken onuradunak herritarrak dira, herrilurren aprobetxatzaile gisa; beraz, jabetza erabileradunaren azken titulartasuna lurren gozamina duten erakundeekin partekatzen dute.

Nafarroako beste mendi batzuekin gertatzen den bezala, foru-lurraldearen zati hori ez dago atxikita inongo udalerritara.

Azkenik, duen garrantziagatik eta etorkizunean izan dezakeen eraginagatik, aipatu behar da, 1999tik aurrera, Errege Bardearen zati garrantzitsu bat parke natural deklaratu dutela eta berori kudeatzeko eskumenak Komunitateak dituela.

### II.2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Errege Bardearen Komunitatea toki entitatea denez, izaera juridiko-publikoa du eta "Nafarroako elkarte edo entitate tradizionalen" kategorian sar daiteke. Elkarte izaerako oinarria izanik, komunitateen antzekoa da, baina ezberdintasunik ere badu, toki entitate, udal eta beste entitate tra-

dizional batzuk barneratzen baititu pertsona juridiko pribatu batekin batera.

Komunitatea, ohiko toki entitate dei ditzakegunekin konparatuta (udalak eta kontzejuak), lurralde izaerarik ez duen entitatea da, ondare baten kudeaketa egitea baita bere oinarrizko helburua, beste helbururik izan gabe. Azken batean, herri ondasunen kudeatzailea da eta lurren gozamina duten ibar, udal eta monasterioek helburu horretarako erabiltzen duten entea.

Aurrekoa oinarri hartuta, hona hemen, labur, aplikagarria den araubide juridikoa:

- Toki Administrazioaren Foru Legeak, bere 45.1 artikuluan ezartzen duenez, elkarre tradizionalen "... antolamendu, funtzionamendu, eskumen eta diru baliabideak, legez ezarrita ditzuten Erregelamendu, Ordenantza, Koto, Paramento, Hitzar-men, Akordio, Sententzia eta Itunen bidez arautuko dira". Horregatik, Komunitatea, bere eskumenen esparruan, batez ere bere arau berezian arabera arautuko da –ordenantzak–. Horrelakorik ez bada, horren ordezkari eta dagokion graduan, toki araubideari buruzko foru eta estatuko legeen arabera arautuko da, bai eta araubide juridiko eta administrazio prozeduraren arabera ere. Dena den, lehentasun horrek ez dakar ordenantza horiek, zenbait alderditan, konstituzioaren eta legeen printzipio eta aginduetatik at daudenik.

- Ondare kudeaketari dagokionez, Bardeako herri aprobetxamenduak arautzen dituen arautegi berezia bere ordenantzek osatzen dute eta bere artikulua gehienak gai horri aplikagarri zaion araubide juridikoa finkatzera bideratuta daude. Beraz, arautegi orokorra ordezkari gisa aplikatuko da, sor daitezkeen hutsuneak betetzeko eta beti ere, ordenantzen berariazko araubidearen kontra ez badoaz.

- Langileei dagokionez, Bardeako Komunitateko langileen araubide juridikoa, orokorrean toki entitateentzako ezarrita dagoen bera da. Gai horri dagokionez, ordenantzak arautegi orokorraren pean daude; hala, arautegia gara badezakete ere –bai eta araubide bereziko alor autonomoak arautu ere– ezinen dira aurka joan.

- Ekonomia- eta finantza-araubidea. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 45.4 artikuluari jarraikiz, elkarre tradizionalak, orokorrean, udal-entitateentzako ezarritako ekonomia- eta finantza-araubide orokorraren arabera arautuko dira, baina soilik "berariazko xedapenik ezean". Beraz, lehenik eta behin, Komunitatearen ordenantzak aplikatuko dira; eta bigarren, arautegi propiorik izan ezean, toki entitateei aplikagarri zaie arautegi orokorra. Dena den, zehaztu behar dugu, gai

honen inguruan ordenantza bidez araututako arloak gutxi batzuk besterik ez direla; beraz, batez ere, foru-legeria orokorraren arabera arautuko da.

- Obra, zerbitzu eta hornigaien kontratazioa. Toki Administrazioari buruzko 224.2 artikulua ezartzen duenez, "Nafarroako entitate lokaletan burutzen diren kontratuak Foru Komunitateko Administrazioari aplikagarri zaion lege eraentzari lotuko zaizkio...". Foru lege horrek ez die, gai horren inguruan, berezitasunik aitortzen elkarre tradizionalei. Gainera, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 2.b artikulua ezartzen du legea toki entitateei aplikatuko zaiela, salbuespenik gabe.

### II.3. BARNE ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUBIDEA

Ordenantzetako 107. artikulua ezartzen duenez, "Bardeak gobernatzea eta administrazioa dagokio haren gozamina duten herri, ibar eta monasterioek osatzen duten Batzar Orokorrari eta baita, lehendakariak eta sei mahaikidek osatutako Batzorde Iraunkorrari ere".

- Batzar Orokorra hogeita bi kidek osatzen dute, gozamina duten ente bakoitzeko bat (edo bi, baina boto bakarra emateko eskubidea dute) eta erabakitze ahalmen berdina izanen dute denek, biztanle kopuru eta aprobetxamendu eskubideak direnak direlarik ere; alegia, ordezkari bakoitzak boto bakarra eman dezake. Komunitatearen gobernu eta administrazio organo nagusia da eta horregatik, oinarrizko ahalmenak dagozkio; alegia, ordenantzak aldatu eta gartztea, aurrekontu eta kontuak onestea, aprobetxatzeko baliabide eta kanonak ezartzea eta bere ordenamenduak berariaz esleitzen dizkion gainerakoak.

- Batzar Orokorrak bere kideen artean aukeratuak zuzen mahaikidek osatzen dute Batzorde Iraunkorra, eta mahaikide horietatik batzordeak berak aukeratuak lehendakari batek. Batzorde Iraunkorrari dagokio "Komunitatearen gobernatze arruntaren gai guztiez arduratzea"; hau da, Komunitatea gobernatu eta administrazio organo arrunta da.

- Lehendakariari dagokionez, ordenantzek ez dituzte bere eskumenak argi adierazten eta, hala, kide anitzeko organoak ordezkari eta horietako lehendakari izatea (karguari atxikitako eskumenak) zeharbidez ulertzen badira ere, ahalmen hauek esleitzen dizkiote soilik: bere "kalitatezko" botoarekin berdinketak ebazteko ahalmena eta "larrialdietan batzordeari dagozkion mota guztieta-

ko xedapenak emateko ahalmena, batzordeak bere lehen bilkuran horiek onetsi behar izatea ezertan eragotzi gabe”.

Kide anitzeko organoek gehiengo soiluz hartzen dituzte erabakiak, ordenantzak aldatzeko kasuetan salbu; holakoetan, “mahaikideen (Batzar Orokorrekoak) bi herenen” aldeko botoa behar baitute.

### III. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta 1994tik 1998ra bitarteko gastu eta dirusarrerara aurrekontuen betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki-entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: arestian aipatutako legeek, ordenantza propioek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioa arautzen duen araudiak eta Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Parlamentuko eskaria bost urtetako fiskalizazioa egitea bada ere, gure lana batez ere, itxikatu azken aurrekontua (1998) aztertzeraz mugatu da, nahiz eta garrantzizko zenbait arlotan (administrazio-kontratazioa eta langileen kudeaketa, kasu) 1994ra jo dugun.

Beraz, txostenaren helburua honako hauei buruz daukagun iritzia adieraztea da:

a) Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzeak modu egokian islatzen duen aldi horretan burutu den jardura.

b) Ondasun-egoeraren arrazoizkotasuna 1998ko abenduaren 31n, aplikagarri zaizkion eta aurreko ekitaldiko antzekoak diren kontabilitate printzipioen arabera.

c) Komunitatearen ekonomia- eta finantza-jarduerak legezkotasun printzipioa betetzen duen.

d) Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

Iritzi hau osatu da alor garrantzitsuenen berri-kuspenetik lortutako ondorioekin, zeinak Parlatuak eskatzen zituen bost urte horietan zehar aztertu baitira.

### IV. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraituz, Errege Bardeako Komunitatearen fiskalizazioa egin du; fiskalizazio hori 1994tik 1998ra bitarteko ekitaldiei dagokie.

Komunitateak bere eragiketak soilik aurrekontu kontabilitatean erregistratzen ditu, eredu tradizionalako aurrekontu egitura bat erabiliz. eredu hori ez dator bat egun Nafarroako toki entitateentzako indarrean dagoen arautegiak diseinatu duenarekin.

Beraz, aipatutako eredu tradizionalako dirusarrerara eta gastuei dagozkien atal ekonomikoak ikuskatzeaz gain, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak ere aztertu dira.

Aurreko idatz-zatian zehaztu den bezala, Parlamentuko eskaria 1994-1998 epeari buruzkoa bazen ere, batez ere azken urte horren fiskalizazioa egin da, nahiz eta administrazio-kontratazioaren espediente nagusienak eta eskatutako urteetako aurrekontuen osaketa eta bilakaera ere berrikusi diren.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organon Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz, eta beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu da lana.

Txostenak, iritziaz gain, Komunitatearen antolaketa, barne-kontrola eta kudeaketaren eragin-kortasuna hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak biltzen dituen atal bat ere badu.

Hona hemen mugak:

- Eredu tradizionalaren arabera aplikatutako kontabilitate eta aurrekontu sistemak ez du bermatzen eragiketa guztiak ekitaldi ekonomikoan erregistratzea.

- Inbentariarik eta kontabilitate orokorrik ez izateak –ez da derrigorrezkoa Komunitatearen tamaina duten entitateentzat– 1998ko abenduaren 31ko ondare egoera egiaztatzea eragotzi du.

Azterketa lana auditore eta auditoretzako bi teknikariek osaturiko taldea batek egin du, 1998ko irailean eta urrian. Gainera, Kontuen Ganbarako zerbitzu informatiko, juridiko eta administratiboen laguntza jaso dute.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Komunitateko langileei.

## V. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan eta IV. atalean zehaztutako mugak kontuan hartuz, Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen 1998ko ekitaldiko finantzei buruzko egoera-orriak aztertu ditugu. Orri horiek Komunitatearen ardurapean egin dira eta, laburbilduta, txosten honetako V. atalean bildu ditugu.

Gure azterlanean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Eginiko azterketak honako iritzi hau eragin du:

### V.1. 1998KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Entitatearen aurrekontuaren likidazioa formatu tradizionalan eginga dago eta ez zaio egokitzen Nafarroako toki entitateei eskatzen zaienari. Bestalde, Komunitateak erabili ohi dituen printzipio eta irizpideen arabera egin dute.

Nafarroako toki entitateei eskatzen zaien aurrekontu arautegiari dagokionez –Bardeako Komunitatean 1999an ezartzen ari dira–, kontabilitate eta aurrekontu kudeaketan antzemandako salbuespenek ezinezko egiten digute Nafarroako Errege Bardeako Komunitateko 1998ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren arrazoizkotasunari buruzko iritzia ematea.

### V.2. ONDAREAREN EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

Inbentariarik eta kontabilitate orokorrik ez egoteak ezinezko egiten digu iritzia ematea Komunitatearen 1998ko abenduaren 31ko ondare egoerari buruz.

### V.3. LEGEZKOTASUNA

Komunitatearen finantza jardueran indarreko araudiaren urraketak antzeman dira ondoko arlo hauetan: kontabilitate eta aurrekontuaren kontrolean, langileen kudeaketan eta administrazio kontratazioko prozeduran. Azken arlo honetan, orokorrean, publizitate eta lehia printzipioak betetzen dira.

### V.4. EKONOMIA- ETA FINANTZA- EGOERA 1998KO ABENDUAREN 31N

Komunitateak emandako informazioaren arabera, 1998ko diruzaintzako gerakina negatiboa da (84 milioi). Ondorioz, eta indarreko araudiari jarraituz, 1999ko aurrekontua kopuru bereko hasierako

superabitarekin onetsi beharra gertatzen da diruzaintzako behar horiek finantzatu ahal izateko.

Dena den, egoera defizitario hori neurri handi batean, 1999an Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz kitatu da. Hitzarmen horretan, Nafarroako Gobernuak, aparteko finantziario gisa, egoitza berrirako 100 milioiko kopurua emateko konpromisoa hartu zuen. Kopuru hori, Komunitateak Nafarroako Gobernuarekin zuen zorraren antzekoa da (108 milioi) eta, batez ere, banaketa-kontuaren saldoaren atzerapenak eta nekazaritzako aseguru sozialen karguek eragindakoa. 1998ko urriko epaiak kargu horiek Komunitateko kontuei egozte bidegabetzat jo zuen.

Entitate finantzarioekin duen zor biziari dagokionez, Komunitateak abenduaren 31n, 54 milioi zor ditu guztira. Kopuru horretan sartzen da 1998ko aurrekontuan sartu gabeko 30 milioiko kreditua.

Azkenik, Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiaren ondorioz, Komunitateak 33 milioi eman behar dizkio Tuterako Udalari, egoitza berriaren orubearen zergaren ondorioz –1989tik 1995ra bitarteko zerga–. Izan ere, salerosketak eskrituraren arabera, Komunitateak ordaintzeko konpromisoa hartu zuen aurreko jabeek aurkeztutako errekurtsioa aurkakoa suertatzen bazen. Gertaera hori, hein batean konpentsatu egin da, udalak, 1999ko maiatzean, 19 milioiko dirulaguntza eman baitzuen; arrazoia izan zen Komunitateak Tuterako egoitza gisa “Casa de la Comandancia” izenekoa aukeratzea. Gainerakoaren ordainketa bi administrazioen artean negoziatu da.

Beraz, Komunitateak, 1998ko abenduaren 31n, diruzaintzan epe laburrera tentsioak eragingo zituen finantza egoera zuen. Dena den, 1999tik aitzina, tentsio horiek hein handi batean arindu egin dira arestian aipatutako dirulaguntzekin.

Laburki esateko eta **ondorio nagusi gisa**, Nafarroako Errege Bardeako Komunitatearen administrazio egitura eguneratu beharra dago, egun dauden kudeaketa beharretara egokitzeko, toki entitateei aplikatzeko den eta indarrean dagoen arautegira egokitzeko, eta baita Bardeako Parke Naturelean burutu beharreko eginkizun berrietara egokitzeko ere. Hori guztia, kontuan hartuz, tiro poligonoaren errenta-kontratua bukatzeak (2001ean) ekar dezakeen dirusarreraren murrizketa eta parke naturalaren kudeaketak sor ditzakeen behar finantzario berriak.

Horien inguruan biltzen dira txosten honetako aholkuak. Horietako batzuk, batez ere kontabilitate

te sistemari dagozkionak, ezartzen ari dira dagoneko.

Bestalde, urte hauetako kudeaketan ondoko hauek nolabaiteko eragina izan dute: batetik, momentuko lanak egiteak, Komunitatearen administrazio zerbitzuak kopuru ekonomikoaren era-

ginez gainezkatu ahal izan baitituzte; eta bestetik, natur baliabideak antolatzeko plana prestatzeak.

## VI. FINANTZA EGORA-ORRIAK

### Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea Aurrekontuaren betetze-mailaren bilakaera pezetatan: gastuak

C/A Kontzeptua	1994	1995	1996	1997	1998
11 Funtzionarioen lansariak	8.036.418	7.523.385	3.054.836	2.514.750	2.567.695
12 Klase pasiboan lansariak	2.495.963	2.582.622	2.671.060	2.748.522	2.806.272
13 Funtzionarioen montepioaren kuot	0	0	0	0	3.048.406
14 Kontratatuaren lansariak	12.034.894	14.712.565	16.811.384	17.715.290	19.649.819
15 Kontratatuaren gizarte segurantza	4.977.069	6.079.456	6.743.496	7.238.045	6.340.898
16 Batzorde Iraunkorraren aseguruak	336.821	355.906	336.821	388.853	491.577
17 Batzorde Iraunkorraren gastuak	3.168.333	2.459.588	2.908.267	5.751.230	5.101.912
18 Zaintza zerbitzuaren materialak	2.655	2.843.293	3.272.981	4.541.298	4.400.510
19 Idazkaritza berritzea, mat. informatikoa	2.968.395				342.664
110 Idazkaritzako gastu arruntak	3.034.947				
1 Atalean, guztira	37.055.495	36.556.815	35.798.845	40.897.988	44.749.753
21 Ibilgailua erosi, manten. eta konpon.	5.399.174	6.766.459	16.851.630	6.566.857	6.019.151
22 Obrak, bideak, putzuak, ehiza	50.706.143	11.334.439	15.231.796	15.668.600	7.899.914
23 Aurreikusi gabekoaks	1.995.231	2.573.535	2.987.822	1.649.997	4.358.280
24 Egoitza berria		81.643.324	18.572.343	91.267.757	431.456
25 Egoitza berriko altzariak		0	0	0	30.668.088
26 Turismoa		0	2.751.520	5.904.828	
2 Atala, guztira	58.100.548	102.317.757	56.395.111	121.058.039	49.376.889
31 Nafarroako Gobernuari	0	0	0	10.006.772	2.170.057
32 Gozamina duten herriei banatua	0	1.000.000	0	0	9.755.962
33 Kreditu eta gastu finantzarioak kitatzea		12.961.268	11.324.046	10.453.950	192.460
34 Eder Partzuergoaren kuota		100.000	100.000	186.885	143.840
3 Atala, guztira	0	14.061.268	11.424.046	20.647.607	12.262.319
41 Kobratze okerrak itzultzea	0	0	23.000	12.000	30.330
42 Langileen ordainsariak	2.987.523	8.442.364	653.797	4.192.664	2.988.224
4 Atala, guztira	2.987.523	8.442.364	676.797	4.204.664	3.018.554
Gastuak, guztira	98.143.566	161.378.204	104.294.799	186.808.298	109.407.515

## Aurrekontuaren betetze-mailaren bilakaera pezetatan: dirusarrerak

C/A Kontzeptua	1994	1995	1996	1997	1998
11 Lurraren erroldetik bildutakoa	18.524.105	27.339.836	20.370.657	21.000.665	23.685.472
12 Abereen erroldetik bildutakoa			7.216.616	8.246.476	9.260.862
13 Ehiza barrutitik bildutakoa	4.256.000	4.884.000	5.352.000	5.046.000	5.390.500
1 Atala, guztira	22.780.105	32.223.836	32.939.273	34.293.141	38.336.834
21 Tiro poligonoa	10.080.994	19.442.961	15.235.085	12.781.889	13.305.946
22 Zenbait dirusarrera, isunak	8.652.108	7.037.522	6.635.020	2.796.616	3.385.500
23 Hitzarmena Defentsa Ministerioarekin	50.495.000	52.514.800	54.615.392	56.800.008	59.072.008
24 Nafarroako Gobernua	996.741	3.458.203	0	10.006.772	3.090.970
25 Finantza entitatearen mailegua		55.000.000			
2 Atala, guztira	70.224.843	137.453.486	76.485.497	82.385.285	78.854.424
31 Ordaintzeke	514.761	4.793.784	2.205.093	1.255.230	678.470
32 Agente betearazlea	0	810.498	482.854	608.000	
3 Atala, guztira	514.761	5.604.282	2.687.947	1.863.230	678.470
Dirusarrerak guztira	93.519.709	175.281.604	112.112.717	118.541.656	117.869.728
Superabita/defizita	-4.623.857	13.903.400	7.817.918	-68.266.642	8.462.213

**VII. GOMENDIOAK**

Ondotik zehazten ditugu arlo garrantzitsuenei buruzko iruzkin eta gomendioak. Horiek aplikatzean, beharrezko oinarriak ezarriko dira Komunitatearen antolaketa, kudeaketa behar berrietarako egokitu dadin.

**VII.1. ZENBAIT LUR UDALEI ATXIKITZEA**

Bardeako Komunitateko lurak ez daude inongo udal barrutiren barruan edo udal barruti bati atxikirik. Horri buruz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 14. xedapen gehigarriak honela dio: "Lege honek indarra hartzen duenetik bi urteko epearen barrenean, Nafarroako Gobernuak Foru Lege Proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, inolako udal dermiotari sarturik ez dauden Foru Komunitateko atalak inguruko udalen batean edo batzuetan sartzea arautzeko."

Lege horrek ezartzen duen epea gaindituta dagoenez, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Botere publikoek beharrezko neurriak har ditzatela behin betikoz Komunitateko lurak egoki - tzak jotzen diren udalerriri bati edo batzuri atxiki dakizkien.*

**VII.2. ANTOLAKETA OROKORRA**

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak, Komunitatearen ekimenez, Errege Bardea "Parke Natural"

deklaratzeko eta Komunitatearen esku uzten du haren kudeaketa. Ondorioz, Errege Bardeako Elkarte Tradizionalak eginkizun bikoitza izanen du: batetik, lur ondarea kudeatzea, eta bestetik, bertako ingurumena zaintzea.

Deklarazio hori aplikatzeak aukera ematen du Komunitatearen kudeaketa egitura berrantolatze-ko eta behar berriei egokitzeko. Ondorioz, ondokoa gomendatzen dugu:

- *Entitate publiko bezala dituen helburuak berriz finkatzea, eskaini beharrezko zerbitzuak zein diren zehaztu ahal izateko.*

- *Aurreko horren arabera, helburuak betetzeko behar diren giza baliabide eta baliabide materia - len beharrak aztertzea.*

- *Komunitateko funtzionamendu arauak toki entitateei aplikatzeko den eta indarrean dagoen legeriari egokitzea. Horri dagokionez, indarrean dagoen legeriak elkarte tradizionalari aitortzen dien gaitasuna indartzea; alegia, beren burua antola - tzeko gaitasuna indartzea. Halaber, horretarako bitarteko egokia erabiltzea (ordenantza propioak, hain zuzen) legeak ezarritako esparru eta proze - suaren barruan.*

- *Egungo ordenantzen edukia eta testua azter - tzea, kudeaketa egoki baterako beharrezko arloak zaindu behar dira (bai ondareari eta baita inguru - menaren zainketari begira) eta denboraren pode - riorioz jadanik eragingarriak ez direnak baztertu,*



edukia eguneratzeko. Prozesu hori guztia, jendau- rrean beharrezko informazioa jarriz eta Nafarroa- ko Aldizkari Ofizilean (NAO) argitaratuz egin behar da.

- Komunitateko organo bakoitzaren eskumenak zehaztea, zerbitzuak eskaintzeko funtzionamendu arinagoa diseinatzeko. Hori dela eta, Batzorde Iraunkorrek eta lehendakariak kudeaketa eta aurrekontuen garapenaren arloan izango dituzten eskumenak aztertzea komeni da.

Arestian aipatutako horietaz gain, ondoko hauek ere gomendatzen ditugu:

- Organo betearazleek hartutako erabakiek (aktetan jasotzen dira) beren oinarriko puntu guztiak zehatz eta argi azaldu behar dituzte.

- Parke naturaleko natur baliabideak antolatze-ko plana (NBAP) arautzen duen arautegia NAO-n argitaratu behar da indarrean sar dadin, hala ezartzen baitu Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legearen 23.1. artikulua.

- Gozamenkideei beren erabilerarako eman zaizkien lurzati- katastroa mantentzeko prozedura egokia bada ere, beharrezkoa da lurzati horien erabiltzaile erreala zein den edozein momentutan zehazki jakitea bermatuko duten bitartekoak indartzea. Badakigu, dena den, egitekoa ez dela erraza, batez ere, oinordetza kasuetan.

### VII.3. KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

1999an, Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa den kontabilitate sistema erraztua ezartzen ari da. Ondorioz, eta hala behar du, Komunitateko kontabilitate eredia toki entitateentzako ezarritakora egokituko da.

Aurrekontuaren kudeaketarako aurrerapen garrantzitsua dela aitortuz, eta arlo hori borobiltzeko asmoz, ondoko gomendioak egiten ditugu:

- Gure gomendioa da entitate publiko guztiei aplikatzekoak diren kontabilitate eta aurrekontu printzipioak modu zehatzean aplikatzea, batez ere, honakoei dagokienean: gastua alde aurretik baimentzea, gastuetarako kredituak mugatzea, eskubide edo obligazioak beren sortzapenaren edo sorrera errearen arabera aitortzea, egitate ekonomikoak behar den momentuan erregistratzea eta ekitaldi bakoitzak bere gastu eta dirurera guztiak jasotzea.

- Aurrekontuak eta beren likidazioa legerian ezarritako epe eta faseetan onetsi behar dira, jendaurreko epea eta NAOko iragarkia ahaztu gabe.

- Aurrekontu bakoitzari kudeaketarako oinarriko gaiak biltzen dituzten betetze-oinarriak erantsita (organoen eskumenak, prozedura orokorrak, erosketak, aurrekontuko kontusailen kudeaketa...).

- Kontu-hartzailatza lana zuzen eta benetan aplikatzea; eginkizun hori entitate publiko guztientzako nahitaezkoa da.

- Komunitatearen jabetzapeko ondasunen inbentarioa egitea.

- Esleipen prozesuetan berme gisa jasotako abal eta fidantzak erregistratzea.

### VII.4. LANGILEAK

Langileen politika eta kudeaketari dagokionez, eta aurreko gomendioak kontuan hartuz, hona gai honi buruzko gomendioak:

- Komunitateko lanpostu guztiak –egungoak eta aurreikusitakoak– jasotzen dituen plantilla organikoa zehaztea. Bertan, zein lanpostu diren, horiek eskuratzeko bidea eta dagozkien ordainsariak zehaztuko dira.

- Langileen administrazio espedienteak osatzea; espediente horietan, langile bakoitzaren bizi-tza administratiboaren dokumentu guztiak jasoko dira.

- Konkurrentzia askearen, merezimenduen eta publizitatearen printzipioak betetzea langileak kontratatzekeo prozesu guztietan.

- Idazkari eta kontu-hartzaila lanpostuak indarrean dagoen arautegian ezarritakoari egokitzea; alegia, horiek funtzionarioak behar dutela izan.

- Funtzionarioen nominako edozein deskontu –montepio eta osasun laguntza– ordaintzen duen entitateak eginen du; alegia, Komunitateak. Hala ber, atxikitako kopuruak Foru Ogasunean ingratuko ditu.

- Bilkura eta batzarretara joateagatik Batzorde Iraunkorreko kideei ordaintzen zaizkien kopuruei PFEZaren atxikipen sistemaren aplikazioa aztertzea <sup>(1)</sup>.

(1) 1998 urtean, dietak eta kilometroak 3 milioi egin zuten guztira.

### VII.5. DIRUZAINITZA

Ondokoa gomendatzen dugu:

- *Bankuetan sinatzeko eskubidea duten pertsonen zerrenda eguneratzea.*
- *Fondoak erabili ahal izateko firma mankomu - natuak behar dira, ez indibidualak.*
- *Bankuko kontuen saldoak kontrolatzea, hutsean gera ez daitezen.*
- *Zenbaketa aktek data eta sinadura izan behar dituzte.*

### VII.6. DIRUSARRERAK

Ondokoa gomendatzen dugu:

- *Ordenantzak eguneratzeko prozesuan, tasa eta kanonen ordainarazpena aplikatu ahal zaien egitate guztiak jasotzea, bai eta gaur egun aplikatu ezin direnak baztertzea.*
- *Aipatutako tasa eta kanonei ekitaldi bakoitzean aplikagarri zaizkien urteko tarifak Batzarrak onetsi beharko ditu indarra hartu eta behar bezala argitaratu baino lehen.*
- *Urteko erroldak organo eskudunak onestea.*
- *Legeak ezartzen dituen errekaratu eta korrituak, betiere, kobratzeko borondatezko epea amaitu ondoren aplikatzea.*
- *Agente betearazle bat kontratatzea, Komunitateari zor zaion dirua kobratzeko prozesua bermatu eta indartzeko.*
- *Ordaintzeke dauden zorrak aztertzea. Behar izanez gero, organo eskudunaren erabakiaren bidez, egoeraren arabera kobratu ezinezkotzat jotzen diren saldoak arautzea.*
- *Komunitateak burututako ekintza batzuei BEZaren alorrean indarrean dagoen legeria eta dituen betekizun formalak aplikatzea.*

### VII.7. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Administrazio-kontratazioaren fiskalizazioari dagokionez, aipatu, urte hauetan zehar inbertsio berezitarako erabili diren baliabide ugariak administrazio-kontratazioa baldintzatu egin dutela. Zehazki, Komunitatearen egoitza berria erosi, berri eta janzteari buruz mintzo gara. Guztira, 260 milioi inguruko kostua izan du.

Eragiketa hori eta gainerako jarduketak garrantzitsuenak aztertu ondoren, esan dezakegu, orokorrean, kontratazioan publizitate printzipioa betetzen dela, gehinetan egunkariaren bitartez, eta bestalde, inbertsio handiak lehiaketa bidez egiten direla.

Dena den, espedienteetan akats hauek antzeman ditugu:

\* Batzuetan ez dute indarrean dagoen legeriak ezarritako dokumentazioa biltzen (txostenak, erabaki zehatzak...) eta hori egitea beharrezkoa da inbertsioa edo hornidura behar bezala kudeatzeko.

\* Batzuetan ez dituzte kontratuen formalizazioak biltzen, ez eta abal edo fidantza bidezko baldintzen eskakizuna ere.

\* Ez dago irizpiderik eskaintza onuragarriena hautatzeko eta batzuetan, egindako hautapena ez da oinarritzen inongo txosten teknikutan.

\* Espedienteen arabera ez dago betetze-faserik, eta egindako aldaketak ez dira berariaz onesten.

\* Parte hartzen duten profesionalak ez zaie PFEZaren atxikipena zorrozki aplikatzen eta batzuetan, ez da atxikitakoa ingesatzen.

Arestiko iruzkin horiek kontuan hartuz, gomendatzen ditugu:

• *Administrazio-kontratazioari buruzko arauak zorrotz aplikatzea. Batez ere, ondokoei dagokienean: administrazio-espeditentea, hartutako erabaki guztiak dokumentuetan oinarritzea eta epeak zaintzea.*

• *Jarduketa profesionalen ordainsariei PFEZaren atxikipen sistema aplikatzea.*


• *Barne prozedura bat diseinatzea inbertsioak eta hornidurak kontratatzearen prozesuaren oinarritzeko pausuak kontrolatzeko eta Komunitateko organo bakoitzari eta beren langileei dagozkien dokumentu, eskumen eta eginkizunak ezartzea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1999ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**ERANSKINA.- ERREGE BARDEAKO KOMUNITATEAREN ORGANIGRAMA,  
1998-12-31ko PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERA**



\* 1999an enpresa baten bidez kontratatua

---

**I saila:**  
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

---

## 2000ko urtarrilan egindako bilerak

### MAHAIA

14 eta 28an.

### MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

10, 13, 21, 25 eta 28an.

---

## 1999ko urtarrilan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

### 4an:

– Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Ansuategui jauna Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean agertzeko eskaria, "Euskal Herritarrok" eta "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeek eginga. Helburua da poliziak abenduaren 26an Arrizabalagan eta urtarrilaren 2an Beriainen izan zuen jarraera azal dezala.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilaria agertzeko eskaria, bi urteko haurrak ikasturte honetan eskolatzearen berri eman dezan. "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilaria agertzeko eskaria, ikasturte honetan aniztasunaren trataerak duen egoeraren eta Departamentuak aurreikusitako hobekuntza-neurrien berri eman dezan. "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilaria agertzeko eskaria, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek eskolaratzearen berri eman dezan. "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Urtarrilaren 2an A-15 autopistaren doakotasuna eskatzen ari zen kontzentrazioaren aurka Guardia Zibilak izan zuen jarrera dela-eta "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko

Taldeak Bozeramaileen Batzarrari adierazpen politiko bat egiteko eskaria.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Nafarroako Gobernuak, Empresa Nacional de Autopistas S.A.k eta Autopistas de Navarra, S.A.k idatzitako akordioari buruzko informazioa.

### 5ean:

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da, toki inbertsioei buruzko urte anitzetarako plan bat egin dezan, "Euskal Herritarrok" Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Onena Bolsas de Papel, S.A. enpresak 1994tik aurrera izan duen egoerari buruzko informazioa.

– Barañaingo Udalaren idazkia. Harekin batera Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakia. Haren bitartez gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan Diputatuen Kongresua premiatzeko Nafarroako Parlamentuak hartu duen erabakia sustatu nahi du.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Elkarbizitzaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordea bil dadin deia egitea, N-121 errepidean izandako istripuei konponbidea eman dakion eskatzeko manifestazioetako gorabeherak aztertuko duen ponentzia bat era dadin.

**7an:**

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haxe eskatzen dute: Herrilan kontseilariaren agerraldia, Beriain eta Artederreta bitartean saihezbide bat egiteko Gobernuak daukan asmoen berri eman dezan.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haxe eskatzen dute: Ekonomi kontseilariaren agerraldia, A-15 autobidea erostearen kostuari buruzko informazioa eman dezan.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuei buruzko galdera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Aparteko orduengatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 05-1-1etik eginiko ordainketei buruzko galdera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Produktibitate osagarri gisara Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 95-1-1etik eginiko ordainketei buruzko galdera, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

**10ean:**

– Alberto Catalán Higuera foru parlamentari jaunaren idazkia. Haxe eskatzen du: Parlamentuko Lehendakariari eta Osasun Batzordeko kideei helaraztea Osasun Batzordeko lehendakariari eta Tuterako «Reina Sofía» Ospitaleko zuzendariari zuzendutako idazkia.

– Cárcarko Udalaren idazkia. Harekin batera, Lizarrako Merindadea dinamizatu eta garatzeko agiri programatikoaren alde Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Grupo Parlamentari Catalá (CIU) Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez, lanaldia 35 orduetara murrizteko herri ekimenaren alde hartutako erabakia jaso izanaren berri ematen du.

– Aragoiko Gorteen idazkia. Harekin batera, Saharako bake prozesuaren aldeko erakunde-adierazpena.

– NUPen Gizarte Kontseiluaren idazkia. Harekin batera, aipatzen diren lansari osagarriak NUPeko langile irakasleei banaka emateari buruz hartutako erabakia.

– Mozioa, «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Estatuko Gobernuari exigitzen zaio Nafarroan daukan ordezkaria kargutik ken dezala, A-15aren doakotasuna eta N-121 errepiderako konponbideak eskatzen zituzten herritarren kontzentrazio baten aurka Guardia Zibilak egindako erasoarengatik.

**11n:**

– Fiteroko monasterioko liburutegia eraberritzeko obrei buruzko galdera, Alli Aranguren jaunak aurkeztua.

**12an:**

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez jakinarazten da Parlamentuko Taldeak izena aldatu duela. Hona berria: «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua - IUN-NEB».

– Kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren sistema berria adjudikatzeko moduari buruzko galdera, Burguete Torres jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuak gordailuetan dituen zenbatekoak eta zein banku-entitatetan dituen, horri buruz, Burguete Torres jaunak aurkeztutako galdera.

– N-121 errepidearen erabiltzaileez, errepide horrek kaltetutakoez eta zenbait hautetsiz osaturiko ordezkari baten bileran, N-121 errepidearen egoera zertan den adieraz dezaten, SPN, EH, IUN-NEB, CDN eta EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeek aurkeztua

«SPN», «EH», «EA/ EAJ-PNV» eta «IU-EB» Parlamentuko Taldeek aurkeztutako idazkia. Haxe eskatzen dute: N-121 errepidearen erabiltzaileez, errepide horrek kaltetutakoez eta zenbait hautetsiz osaturiko ordezkari baten agerraldia, N-121 errepidearen egoera zertan den adieraz dezaten.

**13an:**

– «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haxe eskatzen dute: Fermín Arce Ibáñez jauna eta beste batzuk agertzea «titulurik gabeko» zaharberritzaileen egoeraren berri emateko.

– ISN enpresak Beriainen sortutako hondakin solidoen kopuruari buruzko galdera, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak egina.

**14an:**

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Zaraitzu Ibarreko Batzarre eta udalei buruzko fiskalizazio txostena eta Zaraitzu Ibarreko toki zerbitzu publikoak emateko gastuen arrazoizkotasun ekonomikoaren azterketari buruzko fiskalizazio txostena.

– Javier Barinaga Adrián jaunaren idazkia, CCOO sindikatuaren ordezkari. Haxe eskatzen du: asanblada informatibo bat egitea.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeo Batzorde Berezirako lan plangintza bat aurkeztu nahi du.

– ACS-ACR Enpresen Aldi baterako Batasunak aurkeztutako idazkia. Harekin batera, Iruñeko entzutegia izandako eraikina Nafarroako Parlamentuko egoitzarako zaharberritu eta egokitzeko obren 1999ko iraileko eta urriko ziurtagiri konformatuak.

– José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen enpresa publikoei buruzko informazioa.

– Mozioa, «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “titulurik gabeko” zaharberritzaileen egoerari irtenbidea eman diezaion.

– Aiegiko Udalaren idazkia. Harekin batera, Remontival Ikastetxe Publikoko ikasgelak handitzeari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, N-240-A errepidean –Berriozar-Berrioplano tartean– egiten ari diren egokitze-lanei buruz José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Rosario Huici Vaquero andrearen idazkia, LABeko ordezkari. Hauxe eskatzen du: Parlamentuko langileen hauteskunde-errola.

#### **17an:**

– Iturmendiko Udalaren idazkia. Harekin batera, A-15 autobidea doakoa izateari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Biltzarreko zerbitzuek Milurtekoaren Asanbladari buruzko eta Biltzarreko ordezkari batzuk hara joateari buruzko informazioa biltzea.

– Nafarroako osasun publikoaren kudeaketari buruzko galdera, Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andrearen idazkia.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: “Erasoteko erreka egokitzea, Leitza parean Plazaolako bideak zeharkatzen duen gunean” eraikuntza lanetarako proiektua idazteko laguntza teknikoak kontratzeari buruzko informazioa.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Ubarmin klinikako aldi baterako kontratuei, itxaron zerrendeiei, administrazioko langileei, osasun alorreko langileei eta langile laguntzaileei buruzko informazioa.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Nafarroako Emakumearen Institutuak egindako “Nafarroako emakumeen egoera soziala. 1975-1991 bilakaera” azterlanari buruzko informazioa.

– Mozioa, “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azterlan ekonomiko bat aurkez dezan Audenasaren emakida berreskuratzeak ekarriko lukeen gastuari buruz.

#### **18an:**

– Bakaikuko Udalaren idazkia. Harekin batera, A-15 autobidea doakoa izateari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– NUPen idazkia, lansari osagarriak NUPeko langile irakasleei banaka emateari buruz hartutako erabakia zuzentzeko.

– Beriaingo Udalaren idazkia. Harekin batera, A-15 autobidea liberalizatzeari buruz eta N-121 errepideko puntu beltzei irtenbidea emateari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Sartagudako Udalaren idazkia. Harekin batera, Lizarrako Merindadea dinamizatu eta garatzeko agiri programatikoaren alde Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Iruñeko Kutxa batzearen ondorioz sorturiko entitate berriaren estatutu sozialak onesteko Nafarroako Gobernuak hartutako erabakia buruzko informazioa.

– Begoña Errazti Esnal foru parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Nafarroako Landa ingurunearen Garapenerako Programari (2000-2006) buruzko informazioa.

– Justizia Auzitegi Nagusiaren idazkia. Harekin batera, Francisco Mangado Belouqui eta Alfonso Alzugaray Los Arcos jaunek aurkeztutako 538/96 zenbakiko administrazioarekiko auzibide-errekurtsoari buruzko erabaki irmoa.

– Berriozarko Udalaren idazkia. Harekin batera, egungo egoera politikoari konponbidea ematearren zenbait ekimen proposatzeko Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Nafarroako Antzerki Eskolaren idazkia. Haxe eskatzen dute: Hezkuntza Batzordean agertzea beren egungo egoeraren eta etorkizuneko aurrekusi dutenaren berri emateko.

– Juan Carlos Andueza Franco jaunak, CERMIren ordezkari, aurkeztutako idazkia. Haxe eskatzen du: Parlamentuak bere jarrera azaltzea bat-bateko loteria saltzeari buruz.

#### 19an:

– Villatuertako Udalaren idazkia. Harekin batera, Lizarrako "Remontival" Ikastetxe Publikoaren instalazioei buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Etxarri-Aranazko Udalaren idazkia. Harekin batera, A-15 autobidea doakoa izateari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Talderaren idazkia. Haxe eskatzen dute: Nafarroako Antzerki Eskolako ordezkariak agertzea zenbait gairen berri emateko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, "Hitzarmena Boliviarekin-natura babestea" kontusailaren betetze-egoerari buruz Félix Puyo Rebollo foru parlamentari jaunak eskaturiko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Haren bitartez, Industri kontseilariak agerraldia eskatu du Magnesitas de Navarra enpresaren salmentaren berri emateko.

– «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez, Hezkuntza kontseilariaren agerraldia eskatzen dute Zizur Nagusiko eta Remontival ikastetxe publikoetako eta San Francisco Eskoletako jarduketan berri eman dezan

#### 20an:

– Torres del Río-ko Udalaren idazkia. Harekin batera, Lizarrako Merindadea dinamizatu eta garatzeko agiri programatikoaren alde Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Nafarroako Gobernuak kirol-azpiegituretan inbertsioak egitearekin loturiko zenbait gairi buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak aurkeztua.

– José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak aurkeztutako idazkia. Haxe eskatzen du: Irakaskuntza Pribatuaren Sindikatua ager dadin bere lansariekin dauzkaten arazoan berri emateko.

– Nafarroako errepideetako puntu beltzak 2000 urterako desagertarazteari buruzko galdera, Burguete Torres parlamentari jaunak aurkeztua.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» parlamentari taldearen idazkia. Haren bitartez, CERMI-ren ordezkariak agertzea eskatzen du, ONLAEk bat-bateko loteria saltzearen berri eman dezan.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez, Nafarroako Parlamentuak bere poza azaltzen du Diputatuen Kongresuko Mahaiak presaz tramitatu-ko zuelako Atzerritartasun Legea aldatzeko proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Adingabeei alkohola saldu eta horiek alkohola edateari buruz «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentuko Taldeak egindako galdera.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, "Eremu ez euskalduneko ikastolentzako dirulaguntzak" aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz Juan Cruz Alli Aranguren foru parlamentari jaunak egindako galderaren erantzunean izandako akats baten zuzenketa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Farmaziek 1999ko urtarrila-urria periodotan, 1998ko periodo berarekin alderatuta, egindako fakturazioari buruz Elena Torres Miranda foru parlamentari andreak egindako galderaren erantzuna.

#### 21ean:

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haxe eskatzen dute: Nafarroako Antzerki Eskolako ordezkariak bat agertzea, haien egoeraren berri emateko.

– Tuterako ospitaleko larrialdi zerbitzua gainezka egoteari buruzko galdera, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Mozioa, "Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua" Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan.

– Francisco Javier del Larión Galdeano jaunaren eskabidea, teknikari bat, euskara itzultzaile bat, hartzeko oposizio-lehiaketan parte hartzeko.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldearen idazkia. Haren bitartez, Parlamentuko Lehendakaria premiatzen da Nafa-

roako Kontseiluari eska diezaion abenduaren 20ko 621/99 Foru Dekretuari buruzko irizpena emateko.

**24an:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Intsektizida kimikoak intsektizida biologikoez ordeztuari buruz José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egindako galderaren erantzuna.

–Yosheba Miren Sainz de la Higuera Gartzia jaunaren idazkia, bere egoera salatzeko.

**25ean:**

– Senatuko “Grupo Parlamentario Socialista”ren idazkia. Haren bitartez, lanaldia 35 orduetara murrizteko herri-ekimena sustatzeko Osoko Bilkurak hartutako erabakia jaso izanaren berria ematen da.

– Muesko Udalaren idazkia. Harekin batera, Lizarrako Merindadea dinamizatu eta garatzeko agiri programatikoaren alde Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

–Ander Arana Bareño jaunaren idazkia. Harekin batera, teknikariak, euskara-itzultzaileak, hartzeko oposizio-lehiaketan proposaturiko izangaiei eskatzen zaizkien agiriak.

–Monika Etxebarria Ariznabarreta andrearen idazkia. Harekin batera, teknikariak, euskara-itzultzaileak, hartzeko oposizio-lehiaketan proposaturiko izangaiei eskatzen zaizkien agiriak.

–«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Beriaingo ISN enpresak sortutako hondakin motei buruzko informazioa.

–Begoña Errazti Esnal andrearen idazkia. Hauxe eskatzen du: Nafarroako Gobernuko Lehendakaria agertzea, Foru Komunitateak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniak duten erakunde-lankidetzarako akordioa hausteko bere kabuz hartu duen erabakiaren berri eman dezan.

–Xabier Aristeguieta Oquiñena jaunaren idazkia. Harekin batera, teknikariak, euskara-itzultzaileak, hartzeko oposizio-lehiaketan proposaturiko izangaiei eskatzen zaizkien agiriak.

**26an:**

– Mozioa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lkus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde telebista abian jar dezan.

– Muruzabalgo Udalaren idazkia. Harekin batera, A-15 autobidea doakoa izateari buruz eta N-121 errepideko puntu beltzei konponbidea emateari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, 23/83 Foru Legeko 20.8 artikulua aldatzeari buruzko 9/91 Foru Legearen aurka aurkeztutako 815/91 konstituzio aurkakotasun errekurtsioaren epaiaren aurrerapena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Iruñeko Kutxa batzearen ondorioz sorturiko entitate berriaren estatutu sozialak onesteko Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiari buruz «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– José Andrés Burguete Torres parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatzen du: toki administrazioako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean sartzearen kostuari buruzko azterlanen gaineko informazioa.

– Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak finantziaturiko proiektuei buruzko galdera, Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak aurkeztua.

– Ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzeko ereduari buruzko galdera, Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak aurkeztua.

– Euskal Herriko Karlista Alderdiaren idazkia, azken gertaerei buruzko iritzia emateko eta Karlista Alderdiaren Kontseilu Federalaren komunikatu bat ez argitaratzeagatik komunikabideen aurkako salaketa egiteko.

– Farmazi Laguntzari buruzko foru lege proiektua, Nafarroako Gobernuak igorritakoa.

– Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruzko galdera, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

**27an:**

– Etxeetan gas naturalaren zerbitzua hartzeari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzearekin ados ez dagoela adierazteko Gobernuak hartutako erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Emakumearen Institutuak



egindako "Nafarroako emakumeen egoera soziala. 1975-1991 bilakaera" azterlanari buruz «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– "Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua" Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: hilaren hemeretziaren eskatutako agerraldiaren helburua, Hezkuntza kontseilariarena, zabaltzea, Mendillorriko ikastetxeko jarduketan berri ere eman dezan.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, "Dirubilletaren kudeaketa, 1998 ekitaldia" aurrekontu-programari buruzko fiskalizazio txostena.

#### **28an:**

– Anasapsen idazkia. Hauxe eskatzen dute: Parlamentuaren laguntza beharrian sozialei aurre egin ahal izateko.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: hainbat erakunde agertzea euskarazko irakaskuntzaren bazterketa dela-eta daukaten kezka ager dezaten.

– «Euskal Herritarrok» Parlamentuko taldearen idazkia. Hauxe eskatzen dute: altzari batzuk beren bulegorako.

– Krisialdian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak igorria.

#### **31n:**

– Zizur Nagusiko Udalaren idazkia. Harekin batera, A-15 autobidea doakoa izateari buruz Osoko Bilkurak hartutako erabakia.

– Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren plantilla organiko berriaren proposamenari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Mozioa, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bitartez, Nafarroako Gobernuak premiatzen dute haurrei buruzko lege bat igor dezan.

– Mozioa, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bitartez, Nafarroako Gobernuak premiatzen dute tributuei buruzko lege orokor bat igor dezan.

– Konstituzio Auzitegiaren idazkia. Harekin batera, Foru Komunitateko Gobernuak eta Administrazioa arautzen dituen 23/83 Foru Legeko 20.8 artikulua aldatzeari buruzko 9/91 Foru Legearen aurka aurkeztutako 815/91 konstituzio aurkakotasun errekursoari buruz Osoko Bilkurak eman duen epaia.

– Idoia Munitxa Zuricaray andrearen eskabi-dea, teknikari bat, euskara itzultzaile bat, hartzeko oposizio-lehiaketan parte hartzeko.





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

